



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Sandra Carrasco abeslariak biziki maite dituen boleroa eta tangoa jorratuko ditu Arriaga Antzokiko kontzertuan

- Huelvako abeslaria flamenko kantuagatik da batik bat ezaguna, baina bere izpiritu aske eta eklektikoak era guztietako musika-lurraldeetara bidaiatzera eramán du, jazzetik bossa novara.
- Otsailaren 3an, ostiralean, bere ahots ederrari laguntzeko prest izango den **José María Cortina** piano-jolearekin agertuko zaigu, **José Mercé** edo **Niña Pastori** bezalako artista handiekin eta **Ketama** bezalako taldeekin kolaboratu duen musikari aparta.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 31n. – Ostiral honetan, otsailaren 3an, 19:30ean, Arriaga Antzokiak kontzertu oso berezia eskainiko du **Sandra Carrasco** abeslari ezagunaren eskutik, orokorrean flamenkoari lotua dagoen artista, baina bere ahots-moldakortasun handia dela-eta, musika estilo ezberdinetan sakontzeko gai dena. Izan ere, Carrasco hegoaldeko ahotsa da, xarmagarria, zaildua, «jazzeatua»; eta sustrai flamenkoa du, baina gogo aske eta eklektikoa. Eta oso agerian dauden bere plazerretako bi boleroa eta tangoa dira.

Orain, Sandra Carrascok ikuskizun minimalista eta klasikoa dakar Arriaga Antzokira, hain justu betidanik hunkitu duen musikari maitasun-aitorpena egiteko; izan ere, flamenkoari esker da ezaguna, baina Sandra Carrascok biziki maite ditu boleroa eta tangoa. Hori erakusteko **José María Cortina** piano-jotzailearekin batera agertuko da taula gainean, duan eta ahots biluziz. Cortina du azken urteotako laguntzaile nagusia. Espainiar eszenan oso errespetatua den musikaria da, Ketama taldearekin hamar urtez ibilitakoa eta hainbat eta hainbat artistekin kolaboratu duena, hala nola, Niña Pastori, José Mercé, Pasión Vega, Estopa, Jarabe de Palo edota India Martínez, besteak beste.

Carrasco berak ere, apurka apurka sortu du bere ibilbidea, eta flamenko hainbat eta hainbat abeslarik egin bezala, beste artistekin lan egiten garatu da. Atzera begira jarrita, ibilbide profesionalaren hasieran, Huelvako abeslariak Arcángel, El Pele, Manolo Sanlúcar, Miguel Poveda, Estrella Morente eta beste artista ezagun batzuentzat abestu zuen. Ordutik, bost disko grabatu ditu. Lankidetzan aritu da, besteak beste, Estrella Morente, Concha Buika, Javier Limón, Anoushka Shankar, Chambao, Richard Bona eta Carmen Linares artistekin. Dantza-proiektuetan jardun du Antonio Ruz koreografo ospetsuarekin. Eta Got Talent España lehiaketan ere hartu du parte -Risto Mejide, Edurne, Eva Hache eta Jorge Javier Vazquez epaimahaikideen lau baiezko botoak eskuratu zituen-. Argi dago, ahots aparta duen artista ausarta hartuko du Arriaga antzokiak ostiralean, hilak 3, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus